

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Eskualde oso baten musika erakusleihoa



25 urte bidea egiten!
Ordiziako Gaztetxea.
Autoekoizpena.
Iraupena: 2h 3'.
5 euro.

LAN ERRALDOIA egin dute Ordiziako Gaztetxeak Goierriko atzoko eta gaurko 45 talderen kantak prezio simbolikoan saltzen den CD bikoitzean batzeko. Belaunaldiz belaunaldi Gaztetxeak atek zabalik izan ditu eta gauza bera egin dute bilduma hau osatzeko. Badira talde ezagunak: Potrotaino, Fist Fucking, Animese Martinez, Brigada Criminal, Hell Beer Boys, Milkshake, Geroh eta Fiachras, esaterako. Baina baita bestelako asko ere, eta estiloetan

punk-Oil, ska, noise-pop, rock kaletarra, crust-a, hard-rocka, post-hardcore, stoner, bakarlariak, hardcorea, punka, pop-rocka, metala eta bluesa ere aurki daitezke. Horrez gain, jakina, Laket taldeak urteurrenerako espresuki idatzitako kanta, Mulambo batukadari eta Pirritx eta Porrotxen laguntzari esker, kutsu dantzagarri eta itsaskorra gehitu diona.

www.fotolog.com/ordiziagaztetxea

Iker - Ordiziako Gaztetxearen asanbladako kidea

«Leku askea izan da gaztetxea betidanik, aukerak eman dituen»

Noiz bururatu zitzaizuen halako bilduma egitea?

Joan den urtean hasi ginen Gaztetxearen 25. urtemuga antolatzeko ideiekin. Horien artean DVDa, liburua eta honako CD bikoitza prestatzen hasi ginen. Hasiera batean Gaztetxean jo zuten taldeak sartzea pentsatu genuen, baina azkenean Goierriko talde guztiak gonbidatzea erabaki genuen eta 45 taldek baiezkua eman dute. Batzuk argitaragarriak dira, beste batzuk ez; batzuenak guk geuk grabatu ditugu eta beste batzuek euren kabuz egin dute.

Argi zenuten Laket taldeak egin behar zuela urteurrenaren kanta? Nolako kanta nahi zenuten, mezua erraz helarazteko moduko abesti parte-hartzailea?

Hasieran ez genuen abesti konkretu baten beharrik ikusten, azken finean parte hartu duten talde guz-



tiekin lortu baitugu mezua zabaltea. Gerora, Laketengana jo genuen abestia egingo ote zuten galdetuz, baina ez genien ezer zehatza eskatu. Eta honako hau egin dute Goierri oso ezaguna den Mulambo batukadaren eta Pirritx eta Porrotxen kolaborazioarekin.

Asko izan dira 25 urtetan Ordiziako Gaztetxetik pasa diren musika taldeak, ezta?

Bai, musikarentzat leku askea izan da Gaztetxea betidanik, aukerak eman dituen, kontzertuak kalean antolatu dituen, frontoietan, tabernatan, txosnatan... Baina 25 urteotan musika taldeez gain, beste pertsona asko ere pasatu dira Gaztetxetik asanbladaz asanblada eta *25 urte bidea egiten!* leloa Gaztetxearekin era batera edo bestera harremana izan dutenei zuzendua dago.

Gaztetxe eta gazte asanbladek gorabehera asko izaten dituzte. Zein da gaur egungo egoera? Sasoitsu dago OGA?

Zikloak daudela egia da, baina orokorrean Gaztetxean ibili diren gehienek, bertan edukitako esperientzia betiko dela diote. Adin ezberdinen arteko harremanak zaindu beharrekoak dira, eta orain ilusioa badugula esan beharra dago. ■